

Ikerketa sakona egin arte industrialeku gehiago ez eraikitzeke eskatu dio ANVk Udalari

Egilea elgoiBARREN.net
2008-01-24 10:38

Lerun Txiki-Morteria industrialearen proiektua Eusko Jaurlaritzak atzera bota duela-eta, Elgoibarko EAE-ANVk industria-lurren beharra aztertzeke ikerketa sakon eta inpartziala egitea eskatu dio Udalari. Arau Subsidiarioak berri arte Lerun Txiki-Morteria proiektua bertan behera lagatzea ere eskatu diote.

Udalak, berriz, onartu du Jaurlaritzak hasierako proiektua laurdenera murriztu duela.

Elgoibarko ANVk prentsaurrekoan azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolakuntza eta Ingurune Sailak "sekulago egurra" eman dio Udalari, Lerun Txiki-Morteria industrialea eraikitzeke zituen asmoetan. "Aurreikusita zeuden 70.000 metro karratuetatik 40.000 metrotara murriztu du Jaurlaritzak industrialekurako gunea".

Urtarrilaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu zen Lerun-Txiki-Morteria proiektuaren arau subsidiarioen aldaketa dela-eta, duela urtebete Elgoibarko Ezker Abertzaleak (einbiu orduan) honako alegazioak egin zituen: "lur apurtze handiegia zela, basoa babestu behar zela, ibaia eta meandroa libre utzi behar zirela... guri Udalak atzera bota zizkigunak, Jaurlaritzak guztiak aintzat hartu ditu, eta momentuz, atzera bota du Lerun Txiki-Morteria proiektua". Horren aurrean, Udalak proiektua egokitu du eta Jaurlaritzak onartu du bigarren proiektu hori, baina ANVk dio egokitzapenak, berriz ere, "lehenengoak dauzkan hutsuneak" dituela. "Gauzak ez dira gehiegi aldatu: lur industrialearen behar handia dagoela adierazten da, 1992an bezala, horretarako ikerketa sakon eta inpartzialik egin gabe, eta egoera berriak kontutan hartu gabe; 1992tik hona bost gune industrial berri egin dira, eta batzuk burutu edo gauzatu gabe daude". Bailara bere osotasunean aztertu behar dela diote.

Alkatetzaren jarrera

Alkatetza aldatu den arren, gai honen aurrean lehenengo jarrerari eusten diola esan du ANVk, eta erabakiak; eta erabaki aldaketak, arrazoirik gabe hartzen direla, alkateak "agintzen" duela; delako.

"Orain 6 hilabete, behar beharrezkoa zen Lerun-Txiki Morteria proiektu erraldoia. Behar beharrezkoa zen Balligoitxiko Gune industrial berria. Orain, Balligoitxi ez da behar, eta Lerun-Txikikoa laurdenera jaitsi da. Baina, ez lehen, ez orain, ez digute arrazoirik eman "zeren, itxuraz, lur industriale beharra berbera da, txostenak dioenez. Alkatetza honek, besteak bezala, egin eta desegin egiten du inori konturik eskaini gabe. Agian herritarrekin ondo gelditu nahiak beharturik, agian borondate onez, baina berdin".

Azkenik, Udalak arau subsidiarioak aldatzen jarraitzen duela salatu zuten ANVko ordezkariak: "jadanik 20 baino gehiago eta indarrean daudenak errespetatu gabe". Eraberritu artean aldaketak bertan behera lagatzea ere eskatzen dute.

Alegazioak aurkeztuko ditu ANVk

Jaurlaritzak hartutako erabakiarekin pozik azaldu dira ANVkoak, "guk esandakoak, berandu bada ere, baduelako zentzurik eta arrazoirik". Egoera salatzeaz gain, Elgoibarko ANVk alegazioak aurkeztuko ditu lur industrialen beharri buruzko ikerketa sakon eta inpartzial bat egitea eskatuz eta Arau Subsidiarioetan aldaketa gehiago ez egiteko aldarrikatuz. Euren ustez, Arau Subsidiarioak berritu arte Lerun Txiki-Morteria proiektua bertan behera lagatzea izango litzateke egokiena.

• Ikerketa egitearen aldekoa da Udala

Alfredo Etxeberria alkateak onartu du Jaurlaritzak laudenera ekarri duela Lerun-Txiki Morterian industrialekua eraikitze proiektua. "Jaurlaritzak esandakoa onartu beste erremediorik ez dugu eta dioenari kasu egin";.

Lur industrialen beharra aztertze ikerketa bat egiteko asmoa aurreikusten dutela ere onartzen du Elgoibarko alkateak, "ikerketa hori arau subsidiarioak aldatzearekin batera egin beharko litzatekeela uste dugu. Hain justu, arau subsidiarioak legegintzaldi honetan aldatzeko asmoa daukagu";.

∞ Lotura duten albisteak:

- Herriko errealitatea bertatik-bertara ezagutzeko bisita egin digu Markel Olano diputatu nagusiak (2007-11-15 elgoiBARREN.net)